



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—:	X Urtea	1928'ko Otsaila	110 Zenbakia	:—
----	---------	-----------------	--------------	----

KRISTO



Kristo!

Au izenaren maitatua!

Baño baita ere gofotatua!

Oi! Zeñen ederki esan zion Simeon agureak Iesus'en Amari, artaz esan zionean: «Ona, au jaia dago Israel'go askoren piztuerarako ta ondamenerako ta gogor egingo zaion ezagungaritzat».

Kristo zen, ilunbetan geunden gizonak argitzera zetofen argia. Argi ori nai zutenentzat maitagafi izango da bera arkitzea.

Ilunbetan bizi naiago zutenentzat beñiz, argi ori, min emango diena izango da.

Argatik pozez betetzen dira batzuek Kristo gure Jauna ezagutzean, beste batzuek naigabez betetzen diran artean.

Belen'go artzaiak eta Sortaldeko Magoak pozez betetzen dira, Belen'go estalpean Kristo arkitu-ta. Simeon eta Ana Jaunaren laudariotan asten dira, Bera Jerusalem'go Jauretxean ikusirik.

Erodes, orde, naigabez bete da, Magoak jaio dalako beñia eman diotenean. Ta naiz berak esan, nai lukela berak ere Kristo jaio beñiarri agur egitera (adoratzera) joan, Ebanjelariak adierazten digu, mal-

tzurkeriz esaten zuela ori, bere aufoialetan ito nai lukelako. Eta Ma-goak itzuli etzitzazkionean, argatik ilarazi zituen Belen eta ingurueta-ko aur, bi urtetik berakoak.

Ori izan zen Kristo'ren lendabiziko etsaia; zein izango ote da azkenekoa?

Zer pozaldia izan zuen Juan Batailariak, Jesus lenengo aldiz Jordan bazterean agertu zanean! Jesus izkutatu zeneko asi zitzaien juduei esaten, beren erdian arkitzen zela, aiek ezagutzen etzutena, aien artean arkitzen zela Kristo. Urena ikusi zuenean, pozez bere ikasleai beatzaz erakusten zien esanez: «Ona, Jaungoikoaren Arkumea, bil-dotx edo axuria».

Zer poza agertzen duen Andres santuak, egun bat osoa Jesus'e-kin egin ondorean Simon bere anaiari esanez: «Mesias upatu degu.»

Zein maitagari dan Jesus bere ikasleentzat eta judu efi gaitz ga-bearentzat, Kana'ko eztaietatik asi-ta Lazaro piztu ondoren Jerusa-lem'en bere safera egin zueneraño!

Baño bitartean zer gofoto beltza erakusten duten Beraganako, Jesus'en esan guziak gaizki artuz, bere itzetan afapatu naiez, ta non-dik izen gaiztoa jakiko dioten agertzen diran farisau, Apaiz eta Sadu-zeo'afak. Zer besterik esan nai du ura Kristo dala aitortzea iñori de-bekatzek? Zer esan nai dute Jesus arkaitza bera amildu naiez edo ta afika emateko afiak arturik ibiltzek?

Kristo!

Nola maitatzen zaituen Tomas'ek, bere lagun Apostoluei esaten dienean: «Goazen gu ere, berarekin iltzera». Edo Pedrok eta aren on-doren beste guziak esaten zizutenean: «Zurekin joan bear ba-dut ere integira ta eriotzara, etzaitut ukatuko».

Zein maite zaituen Maria, Lazaroren afebak, irureun *denario* gu-txiena balio zuen ukendu ontzia Zure burutik bera ixuri zueneko!

Baño zein gofoto beltza ote dizute, Apaiz Nagusi ta Farisauak beren batzafean bildu-ta «ainbeste mirari egiten dituzulako» bizia zu-ri kentzea erabaki duteneko. Zer nolako gofotoa ote zan beroiena, gezufez eta jakile edo testigurik gabe, oyuka zure eriotza eskatzen zutenean; Bafabas bera zu baño len askaturik ikusi nai izan zute-nean; ziorkaturik eta arantzaz burua josi-ta ikusirik, zure itxura efu-kafiaz kupiderik izan etzutenean, edo gurutzean josi ondorean ere maxika ta birauka ari zitzaizkitzunean?

Oi Kristo!

Egiaz, zu zerala Jaungoikoa, biotz onak ofela maitatzen zaituz-tenerako, ta gaiztoak, zure bildufaz, ofela ondatu nai zaituztenerako!

Kalparegi



«Ni naiz Artzai ona». «Nire ardiak entzungo dute
nere deia.» (Joan. X.)

¡Kaiol utsa!

(Nere anai maite-maite Joxe'ri berak ekari zidan txoriaren ordaiñaz)

Goierian jaio ta betefian nerekin
neukan txoritxo kufunak
bere abesti zoliz amaika aldiz arindu
dizkit oldozpen ilunak;
abost leun, dardaritsuz esnara gozoak
ta pozgafiak benetan
egiñarazi-re bai eguzki izpiz batera
udabefiko goizetan.

Buru gofi, txuri, beltz ta ego oriduna zan
karnaba guzien eran,
baña txiritxilari bikañenetakoa
ezautu ditudanetan;
bere moko samura negu aldian ere,
egunez beintzat, itxita
ezin eduki zuan ¡baña betiko itxi du,
gaurko goizean il baita!

Amaika aldiz begira egon natzaio pozki
bere moko txofotxera
kaiolean abesten ibili dan orduan
zipotz batetik bestera.

Goizetik afa'tsara zoli ekin ondoren
bere egopean burua
sartzean ere samur egon natzaio beira
sukalde txoko-txokuan.

Beti bezela abesten utzi det gaur goizean
alai ta bizkor gaxoa
baña etxeratzean laister urbildu zaizkit
nere muñil-nexkatoak;
unkituak bidera irten zaizkit gaxoak
eta irurak batetxo
moñel esan dituzte itz unkgafi auk;
«¡il da txoria, aitatxo!»

Edoñentzat ez da beñi unkgafia,
olerkariarentzat bai

ta aurtxoaren aotik itz oiek entzutean
ezin eutsi nik biotzai;
au dalakoz, itunki, kaiol ain politera
urbildu naiz aurtxcekin
Ita karnaba kutuna gogortua zegoan
moko itxiaz ixilik!

Batetan galdu zaidan txori abeslaria
sabel txuriztaz gora ila
arkitzean, eskua sartu det kaiolean
txoritxo gaxo onen bila
nere aurtxo maiteak negartsu egon dira
nik kaiol au ustu arte
beñiz ere irurak ao batez esanaz:
«¡aitatxo: ila dago e?...»

Oldozpen ilun oiek arintzen launtzen ziran
txoria artu det eskuan
ta burnizko kaiola emen dago orain utsa
sukaldearen txokuan;
ez det ikusi nai-re, oraingoaz, kaiol ori
eta ez ikusteafin
¡irru umeak negartsu, ganbara daramate
kaiol uts ori tamalez!!

Zubigar.





Maskara-dantza



I lagun gazte dira. Bateri, bere bizitza gaixtoak arpegira ematen zion. Inpernuko suaren gai izango zan...?

Kale erdiyan izketan jafita galdetu ziyon batek bestiari: Nora zuaz Joxepa? Agur Mayi, laxter bada-tozkigu Iñauteri egunak ta dantza-jantzi eder bat prestatzen ari naiz egun orietako.

—Baño gtxoratu egiñ alzera Joxepa? Zu Mariaren Alaba ta Iñauteritako dantzara, ta «maskara-dantza» diyoten oyetara?

—Zer bada Mayi, pekatu alda maskara-dantza oyetara joatea edo zer?

—Ez altzera oroitzen, azkeneko Kongregaziyoko egunian Apaizak esan zuanaz?

—Bai egiya da, baño etzait ajolik; bera ezin da gu bezela joan eta ofegatik debekatzen digu Mariaren Alabai, baño ez, itz emana daukat ta joan egingo naiz. Ta dantza ori, larunbata gabeen izango da Jaungoikoak nai badu.

—Jaungoikoak nai badu? Nola nai izan bear ditu Jaungoikoak olako gauza gaixto oyek? Ta zer diozu, Joxepa, larunbata gabeen dantzara? ez al zera oroitzen Igande goizean, Mariaren Alabaen komuniyoa degula beriz?

Etzait ajolik, gure Apaiz agure orek itzik esan ez dezan, Igande goizean, dantzan egin ditudan pekatu guziak, Prailiakin konfesatu, ta ara joango naiz zuekin batean.

—Baño ori egin bear al dezu Joxepa, zuk?—Bai Mayi, bai, zuk eztakizu, nolako poza daukaten egun oyetan mutilakin ibiltzeko. Ara nolako eun (tela) urdin edefa erosi detan, nere maskara-jantziya egiteko?—Edefa da bai Joxepa, baño bildur naiz Jaungoikoak zurekin berea egingo oie duan.

—Ez ori siñistu,—erantzun zion Joxepak.

—Zeruari nai ez dakiola nik bildur detana zuri gertatzea.

—Ja! Ja! Ja! Begira, Mayi, egun abetan dantzatu ondorean, zu konbentuen batera monja sartu bear dezunerako, zuri emango dizut nere dantza

jantzi ori, edo bestela ni lenago iltzen banaiz, neronekin eramango det ilobira.

—Neska, neska, buxidurin deabrua bafenen sartu zainela.—Agur Joxepa.
—Agur Mayi.

Joxepak lagun afen ondotik aldegin zuanean, bereala arkitu zan mutil zoro askok ondo itzegiten ziotela, eta neskatz buru-arin onen gogo guzia, bere gorputza lore bat egiñik erakustea zan.



Urbasa mendian. (Fot. Otermin)

Bitarte ontan ere, senideak igefitzen zioten bere bizitasun argia eta munduaren begietan agertu nai geyegikoa.

¡Gaxoa! Igande goiza zan. Mayi, goiz jeiki, ta komuniorako prestatuta, laxterka zijoan Elizara.

Kale erdiyan, lau gizonek, eri bat zeramaten kamiñā batean, ¡Ama zerukoā! oju izugafi bat bota zuan, jegiya ote al da! soñeko urdiñaz igefi zion Mayik!

—Zein da? galdetu ziyen; gaxotegira daramazute?

—Atzo gabian, maskara-dantzari, il zan gazte bat; Gaxotegira ez, ilā bai dago!

Biyotza erdibitu egin zitzayon, itzik esan gabe negañez kanposantura Eñosayoa esanaz joan zan Mayi, baño antxe iya ilik gelditu zan, bere lagun Joxeparen arpegiya ta maskaraz jantziya ikusi zuanian.

Gazte maiteak: Gezuñezko Igarleakin kontuz zabilatzate, ardiz jantzita datozkizute, baño bere bañuan otso amofatuak bai dira.

Ez gorputza iltzen dutenai bildur izan, bada anima ez dezakete il. Bildur izan zayozute, anima ta gorputza infernura bota ditzazkenari.

Bai aldakizute zein dan ori? Dantza, Iñauteritako dantza.

Donosti'ar Gabriel A.



Paduako Antonio Deuna.

Ebitan ibili aŕen, batere busti gabe.....

Paduako Antonio Deunak Briban deritzan eŕian bere prailentzako etxea jaso eta andik bertako aitzulo batean beretzako bizitokia egiñik, bakartasun aundian bizi zan.

Beiñ batez sukaldezaia prailentzako zer ipiñirik gabe arkitu zan; eta Antonio Deunak elizara bide aundiko andre bati bere baratztatik prailentzako zerbait baratzekari bidaltzeko eskatu zion. Garai artan ebia ari zuen goian-bean.

Etxekoandreak neskamea deitu zuen eta, gozo-gozo itz-egiñaz, berealaxe baratzara joan eta prailentzat bear zana ekafi zezala esan zion. Oso neketsu zitzakion neskameari arazo ori, alako ebia ari zuen da. Baño alarik ere, etxekoandrearen esanera, joan zan, bear zan baratzekaria egin eta prailetara eraman zuen eta aldi guztian ebia atertu gabe aritu eta prailetara etxea eŕitik ufutik egon aŕen, neskame ura etzan tantarik ere busti.

Aintza Jaunari eta aren mirabe zuzen Paduako Antonio Deunari!

EREÑOTZU.

 Ilabete onen amairugaŕen egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA'-REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.




Jesus, Jesus nerea




(Coral: *Jesu, Jesu, du bist mein*)

J. S. Bach


Je - sus, Je-sus ne - re - - a! Zu ze - ra ne-
 Je - sus, Je-sus mai - te - - a! noizpait il-tzen




re mai - te - - a; Lur ontan na - gon ar - te Zu ne-re a -
 nai-ze - ne - - an e - gi-zu - - ar - - ki na - din ze - ru-an zu -




dis - ki - de - a. Zu - re es-ku-e - tan nau-ka-zu, Gu - zi au zu -
 re au - fe - an san - tu taain-ge - ru er - di - an an - txe se - ku -



re - - a nau-zu Ta Zu be-riz ne - re - - a Je - sus, Je - sus
 la gu - zi - an zo - ri - o - nez be - te - - a Je - sus, Je - sus



mai - te - - - a!
 mai - te - - - a!



Jai eguneko lana

Missisipi'ra joan-etoria egiten zuen itsasontzi batean Nagusiak igandean, batere bea'rik gabe agintzen zuen ontzia zamaz betetzeko. Itsas gizon batek esan zion: «Jauna, lan bea'rik gabeko onek kontzentzi saria jartzen dit igandean eta nik eztet lanik egingo egun ontan». Nagusiak erantzun zion: «Bertatik ba-oake emendik». Ordaindu zion zofa ta kalean utzi zuen. Lenbizian gure itsasgizona oso naigabetua gelditu zen. Baño gero, bere baitan esaten zuen: «Aurki gertatzen zaiten guzia nere onerako izango da». Egun batzuen buruko itsasontzi artako pertz bat lertu zan eta bertan zijoazen asko il ziran. Au gertatu zan «Helen M. Gregor» ontzian, 1830'ean.

Gaiztakeri buruak

Jaungoikoaren eta Elizaren aginduak adirazi ondoren, nai dizugu itze-
gin gaurkoan agindu oiek austeko eragiten diguten gaiztakeri buruetaz.

Baño zer dira *gaiztakeri buruak*? esango dezute.

Gaiztakeri buruak dira, gaiztakeri guzien sorpuru ta itufi bezelaxe di-
ranak. (N. K. J.)

Aziak ekartzan du landarea; arbi-aziak arbia; zeape-aziak, zeapea.

Onelaxe gertatzen da gure animako onbide edo gaztabidetan ere.

Azi gaizto bakoitzak, bere motako gaiztakeria ta Jaungoikoaren edo
Elizaren Aginduak austen dituan utsegiña dakar beregandik.

Gizonaren grifetan, ordea, badira Agindu oiek ausi erazten dizkiguten
azi gaizto, sustrai madarikatu oietatik, zazpitarafio.

Azi gaizto oiei gizonak bere bafuan (bafenen) zañak edo sustraiak bo-
tatzen uzten badie, alde askotara eragozten diote Jaungoikoaren eta Eliza-
ren Aginduak betetzea.

Griña gaizto oien azia, jatofizko (sortzezko) pekatuak guzion biotze-
tan utzia degu.

Griña gaizto oien azia ernatzen asi gabea dago aur txikietan; baño azi
ori ernatzen da edo ez, ala nolako aizeak inguratzen duen aufa; nai dut
esan, ala nolako lagunak eta bizibidea ikusten duen eta erakusten zaion
aufari.

Azi oiek, zañak botatzen asiz geroz, bereala gaiztakeri askoren itufi
pozoindu edo animaren urodi (zorna-zauri) nazkagafien antzeko biurtzen di-
ra. Argatik esaten zaie *gaiztakeri buruak*; pekatu askoren sortzale diralako.

Gaiztakeri buruak zein dira?

Gaiztakeri buruak zazpi otxek dira: Aundikeria, zikoizkeria, loikeria,
asafezeria, jatekeria, bekaizkeria ta nagikeria.

Gregorio Aundi deunak berezi zituan gaiztakeri buru oiek, eta Tomas
santuarekin batean, teologo guziak ontzat artu dute berexkuntza ori.

Apokalipsis liburuan esaten digu Juan santuak berak ikusi zuen suge
gofi, eguzkiz jantzitako Andrea galdu nai zuenak, zazpi buru zituela (Apoc.
XII-3); eta lufeko efegeai gaiztakeriaren ontzitik edatera ematen zien ema-
kumea gañean zeraman abereak ere, zazpi buru zituela. (Apoc. XVII-3).

Zazpi gaiztakeri buru auetatik datoz ba, gizonen gaiztakeri guziak eta
Aginduen auste guziak.

¿Gaiztakeri buru auek beti pekatu aundia al dira?

Gaiztakeri buruak ez dira pekatu aundia izanen, Jaungoikoaren edo
Elizaren aginduen bat gauza lafian ausi azten dutenean besterik; naiz berez
pekatu aundiak izan.

Gauza guztiz gaiztotzat emanik ikusten ditugu zazpi gaiztakeri buruok.

Afokeriaz Jaungoikoak dio: Edozein afokeri gofotagafi da Jaunaren-tzat. Alperkeriaz Jesus'ek esan zuan: mirabe alpefa kanpoko ilunbetetara botaria izango da (Matth. XXV-30).

Beste guziak gaitzesten ditu befiz Pablo santuak itz auetan: zikoitzak eta mozkofak ez dira Jaungoikoaren efegetzaz jabetuko (I-Cor. VI-10).

Aragiaren egintzak agirian daude, onela dira: aragikeria, loikeria... gofotoak; asafeak... eriotzak; mozkofaldiak... Ofelako gauzak egiten dituztenak ez dute Jaungoikoaren efegetza (zerua) iritxiko (Gal. V-19-21).

Intza'r Damaso A.



Kingchow 1927-20'an

***** ◆ ◆ ◆ *****

Otaun'dar Bonipagi A'ri.

(Azkena)


27'an joan giñan «Mudjia miao»-ra, urengo egunerako gauzak ondo antolatzen ta. Urengo egunean Gergori A'k Jaunartzeko meza eman zuen eta amarak aldera nik meza nagusia. Neronek auren «Asperges» abestu nuan eta gero meza. Abeslariak Gergori A. ta bi moroi, Tsinchow'en gure kolejioan zerbait ikasiak. «De Angelis» abestu genduan; baño besteak nere laguntza barik etziran ausartzen, oreगतिक «Kyrie'k» ni ta besteak txandaka eta «Gloria» denok batera egin genduan; beste gañerakoa ixila izan zan, Apaizak eta abeslariak aldizka abestu bear dutena ez ezik. Ixilaldi oyetan txinarak beren ototzak abestu zituzten.

Inauguratu genduan eliza au «yo—tang» edo lurpeko eliza bat da, naiko polita. Suziriko edo petardo batzuek ere bota genitun. Eliza bete-beterik zegoan; asko paganoak. Azkeneko oyen tartean gizon txikitxo bat, sudur luze zorotzekoa (emen geienak sudur motzak dira) oso beltzarana. Guk «Mudjia-miao'ko maokui» edo deabrua deitzen

diogu, kristauen etsai aundia dalako; beti kristauen aurka maldizioka ari da (txinařak maldizio ugari dituzte eta ikaragarřiak); asko ez omen dira kristau egiten, gizon orġen maldizioak izutzen ditualako. Jai onek biotzera zer edo zer esan ote dio? Jainkoak biotz ta adimendua argituko al dizkio! Pagano sail bat ere etori zan guri emaitzak egitera.

Meza nagusia baġo lenxeago «Pei-djiats-atik» etori zitzaigun gizon bat, bere luřaldean bi kristau il zorian zeudela ta, ařen! sakramentuak eramatera joateko. Bazkalondoan Gergori A'k Sanschelipu'ko bidea artzen du ta ni Chengyuen'ekoa, or olio deunak, mezarako bear diran gauzak eta artu ta uřengo goizean «Peidjiats ara» joateko (200 l'ko bidea, bi egunetan egiteko)

29 goiz goizean meza eman eta nere moroia eta Peidjiatsatik etoritako gizonakin elizakoak ematera abiatu. Eguerdi aldera igo giġan mendiz-mendi zabal zelai batera. Bereala asten zaigu euria; jotzen ditugu gure z ildiak eta tximista bezela sartzen gera urbileneko ostatuan. An bizpauru ordu egingenituan atertubitar tean eta bizkaltzera. Beriz atera giġenean euria beriro eta miao edo pagoda batean sartu giġan. bertako deabru ilaragariġen artean asti luzea egiġnik atertu zai. Azkenik bareneraġo busti busti eginda ostatu batera eldu giġan. Kang gaġean (onezkero badakizu Kang zer dan: txinařak lo egiteko gelatan daukaten luřezko plataforma bat, azpitik bi labe izaten ditu berotzeko; geienetan zaldi gorotz idortua izan oi da sugaia) kang gaġnean etxekuan de zara ta gařtea ari ziran bere lanak egiten. Eskatu giġien gureř zar Kang ura uzteko; baġan modu txarean artu giġuzten eta geienez Kang txoko bat besterik etziguten utzi nai, berak bertan lanean jaraituz. Baġan guk ez degu emakumerik nai Kang'ean eta denbora luzean esamesaka egon giġan etxeko jauna ta semeak etori bitartean. Ok oso ederki artu giġuzten eta andik andrakumeak biali zituzten. Bereala txamara kendu (uřengo goizean oraindik busti bustia zegoan) eta nere mantan bildurik, kang gaġean etzaten naiz, ořela legortzeko, apaldu eta lo ere bertan egiten det. Bost bat gizon biltzen gera kang berean lo egiteko.



Iru nexka, gure misiolariak bataiatuak

Ufene egunean atsalueko seiatarako lenengo gaxoaren etxera eldu nintzan eta oliodura eman; uren goizean meza ta Jauna eman eta beste gaxoaren etxeko bidea artu genduan. Bide erdian geldiazten naute, gaxoa iltzen danean lurperatu nai duten tokia ikusteko. Paganoak bat edo bat iltzen danean beti aztiren bat deitzen dute, ark ikusi dezan, lurperatzeko zein toki ote dan egokia; bada beren ustez, toki egokia ezpadute artzen, espirituengandik kalte izugariak etori lezaitezke. Gure kristau ok ere, oraindik kristau beriak dira, eta siniste oker guziak bat-batean ezin kendu.

Lurperatzeko aukeratu duten tokiaz galdetzen didate nere iritzia eta nik batere begiratu gabe eta zalantzarik gabe egokia dala erantzuten diet; aruntzaxego eramaten naute eta an ere berdin, naiz toki bata naiz bestea egokian berdi-berdiñak dirala erantzuten diet. Nere oztasuna ikusirik ez dute atsedenik eta ikusten ditut urduri aize ta uraren direzioak-eta artzen eta entzuten diet esaten, gauza oiek nik ez ditudala ulertzen. Orduan joan nintzan berengana eta esan nien, Txinako oitura oiek guziak ederki nekizkiela, gauza oyek guziak irakuri ditudala eta ustekeriak besterik ez dirala. Lurperatzeko toki guziak berdiñak dirala; ziur egoteko ortik etzayela gaitzik etoriko; paganoen gauzak dirala oyek. Bearrena zala norbait iltzen danean, aren animaren alde otoitz egitea. Onekin itxuraz beintzat bare gelditu ziran. Oliodura ta abar beste etxean bezela. Beriz Chengyuen'era Agoraren iruan eldu nintzan.

Agoraren lauan Kotabandia'tik (50 li) deitu niñuten. Bi gizonak burukaren bat izan zuten eta bat, artu zituan makilkadakin buru, sayets eta iztaretan zauri galantakin geratu zan. Oneri ere elizakoak eman bear izan nizekion. Gero gorputzari ere zerbait laguntzeko, bere zauriak aguardientearekin garbitu nizekion, eta hortzena edo lantenekin eta zapi batekin zauriak bildu nizekion. Ez det geiago gizon oren beririk, bañan onoskero osasun bidean egongo dala uste det. «Lareko'k» au irakuri ezkeri iribañe egingo luke; bañan ez sendagayik, ez sendakiñik dagon tokian zer edo zer egin bear.

Ilabete onen 12 ezkeri emen Kinchow'n nago etxea zaitzen, guda-riak beriz sartu eta oker aundiagorik egin ez dezaten.

Au irakurtzean bialdu yozu Intzar Damas A'ri; egoki zayona «Zeruko'n» argitaldu dezaten; ofela ekinaldi batez bi txori. Esayozu Kapitulu aurretik idatzi zidana artu nuala eta eskarik asko.

Estilografica zar batez ari naiz idazten, izugarizko penitentzia!; iya nere eramakizuna galdu det eta agur.

Goraintziak denai eta zuk otoitz bat nere alde.


Lizartza'tar Ander A.

Miss. Ap.


Ikasi..! Ikasi..!




I.—Aralar-mendin bizi zan
azeri i e-gofi ori;
olategiko bidea
maltzur orek ongi daki.




II.—Olar bat arapatzera
orain ere or eldu da;
olara laster zulutik
o ategira sartu da.



III.—Baña gaiztoak atea
jo batera ta bestera
azkenean idiki du
ta olafari ortzak sartu...



IV.—Zenbait egunen buruan
beriz ere gosetu zan...
oraingoan olo ordeztz
zer arkitu ote zuan?



V.—Gizonak an jaritako
zepon anka sartu du...
gaizki-egiñen saria
ora! oraintxe artu du.



VI.—Ankak ta mutufa lotu,
ola zintzilikta jafi,
ta etxez-etxe darama
or guzien pafagafi.

Borondate aundiko gizonak

Donosti'ko «brancardier» zintzoai.

Bazkaria azkenetan zegoan. Bazkarira bildu ziranak gizonak ziran guziak ta guziak ke-belaña edo tabakoa efetzera emanak. Aundiak ziran beren gorputzaren indafak, baño aundiagoak beren borondatearenak, Lourdes'era zetozen gaxoakin gora ta bera, goizetikan afatseraño ibiltzeko.

Bazkari-ondoko izketa bizi-bizian ari ziran, bat zutik jafi zan, keaz inguratuta.

«Jaunak...»

Guziak ixildu ziran.

«Ez dizuet itzaldi bat botako, ezta ezer aginduko ere. Gauza bat eskatu nai nioke zuen siñismenari... eskatu... baño agindu, ez... Gure buruari zerbait ukatzeko, borondaterik ez al degu izango?»

Besteak zer zioten jakiteko itxoin gabe, aufera jafaitu zuan: «Iru egun badira, Ama Birjiñak sendatzerik egiten ez duela. Sendatze oyek, jakiña, ez dira bear-beahezkoak siñisten degunontzat, baño ez diteke ukatu epelen siñismena piztu ta gurea ere sendotu egiten dutela.

«Badakizute Ama Birjiñak nola eskatzen digun gure gorputzak nekatzeko, pekatuen ordañez. Gñera emen nai ditugun mirariak esk'er edo mesede aundienetakoak dira ta nola-nai irabazten ez diranak. Ez al dituzute irabazi nai?»

Etzan itz bat ere aditu jan-toki guzian.

«Orduan biyar, nere adiskideak, gure buruari zerbait ukatu bear diogu, gure maitetasuna Ama Birjiñari erakusteaferen.

¿Zer diozute?

—Bai, bai.

—Itz-ematzen al dezute?

—Bai ta ziñez.

Ta irureun gaxozai ayek elkar'i begira badirudi ziotela: «Zer eskatuko ote digu?»

Orduan besteak esan zien: «Biyar ba, Jaungoikoaren ta Ama Birjiñaren izenean, gure gaxoengatik, egun osoan utziko degu...»

—Jatea?—Edatea?—Itz egitea?—Lo egitea? zioten pafez ta pozik gizon ayek.

—Ez. Ori baño obea, ori baño neketsuagoa.

Zer ote zan gizon afek asmatu zuana? Alpefik zan elkar'i begiratzea galdezka; etzitzaion iñori bururatzen.

—Bai, nere adiskideak, esan zien azkenean, ori baño obea, ori baño neketsuagoa: *amabi ordu ere gabe egongo gera!*

* * *

Ufengo goiza etofi zan ta penitenzi aundi ori asteko ordua ere bai. Efe-zalea ez danak par egingo du, baño oitura ori dutenak badakite nolako

borondatea bear izaten dan, minutu bakoitzean beren buruari atsegin ori ukatzeko. Nork daki zenbat aldiz joan zitzaien eskua, oartu gabe, sakelera, pipa, ke-belaña ta zigafoa artzera. Baño eskua sakelera bezin laster etortzen zitzaien burura, Ama Birjiñari eskeñitako penitentzia. Bestetan adiskideak ziran, batez ere efetzen etzutenak, usai gozoko belaña begi aúfean pafez jartzen zienak.

Gauza txikiak izango dira, baño gizon ayen borondatea ongi erakusten zuena. Batzuek etzuten uste zigafoa uztea naikoa zanik; auferago joan ziran. Penitenzi au neketsuago egiteafen, ikustekoak ziran gizon ayek zigafoa egiten; gero ezpañetan artu, sua piztu ta zigafo ondoan ipintzen. Gero ezpañetatik kendu ta ufutira botatzen zuten.

* * *

Eztakit nik Lourdes'ko gaxo-zaiak egiten dituzten penitenziakin Jaungoikoarengandik sendatze asko iritxiko ote dituzten. Esan ditekena da esker edo grazi ugari jetxi-erazten dituztela zerutik.

Lourdes'en beren borondatez ta gogoz gorputza nekatzen dutenak zenbat ekartzen dituzten bide onera ta zenbat aberastutzen dituzten beren animak!

Eztakit norañoiko penitentzia izango dan 12 ordu efe gabe egotea, baño bai, gizon ayei afatsaldeko 6'etan efe zezaketela esan zienean, askok esan zutela:

—Ba! asi geran ezkerro, biyar arte efe gabe egon gaitezke.

René Gaëll.

Jaungoikoaren Ama Bearorduetakoaren Alkartasuna Iruña'n

Lorenzo santuaren elizan, miña zazpitan eun eta zazpian (1707) ezafia izan zan. Eñotxape'ko bizilariak alkañi laguntzeko sortu zan, artean an etzegolako beste alkartasunik. Alkartuak erabaki zuten urteoro zenbait meza ateratzea; alkartuen bati Elizakoak ematean, Buruzagiak gure Jaunari argiak laguntzea, ta beroietako iñor iltzean, aren aide edo ondorekoai diru zerbit, alkartasuneko diruen arabera (ariora), ematea ilariak ordaintzeko.

Alkartuak artzen dituen diru oiek, sartzeko eta gañera urteoro ematen zutenetik zetozen.

Ondoren alkartasuna urian bañena zabaldu zan eta len Eñotxapean bizi ziranak besterik ezpa-zitezken izan ere, ofen Buruzagi, gero urian bañengoakin aldizka izaten ziran bi urtetik bi urtera.

Orain aldian Otsailaren 2'an izaten dute alkartu guziak Jauna artzeko eguna eta gero izaten dute beren itzaldia ere; biramonean ilen urtaburua meza kantatuarekin eta Epailaren 25'an, Dagonilaren 10'ean eta Agoñaren eta Neguilaren 8,an meza ixilak.

Alkartasun onek ba-ditu bere barkamen oso zenbait eta ez oso asko. Garai batean biziño azkaña zan; gaur ez liteke beste ofenbeste esan.

M'ar F. A.